

# Zebarri

ETXEBARRIKO EUSKALTEGIKO IKASLEEK EGINA  
2006ko apirila



POLONIAR EUSKALDUNAK  
ETXEBARRIN



ULIBARRI  
EUSKALTEGIA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Sola  
Departamento de Cultura



# J.M. Pereiro



- **Hasteko eta behin, hitz egin zure ibilbideari buruz, bai Etxebarritar moduan, bai udalbatzako kide moduan.**

Duela 40 urte bizi naiz herrian (11 hilabete nituenetik) eta nire bizitza beti herriaren inguruan egon da. Nire kirol zaletasunak mundu horretan parte hartzera eraman nau hainbat arlotan: kirolari bezala, entrenatzaile bezala edo zuzendari bezala. Horren ondorioz, pentsatu nuen LVP taldearekin bat etortzen nintzela eta laguntza eman ahal nuela arlo horretan, herrian defizita zegoela uste nuelako. Ustekabean, Etxebarriko Udalean nengoen, kiroleko arduradun nire lehenengo kandidaturan eta azken bi hauetan Kultura, Gazteria eta Kiroleko arduradun.

- **Zeintzuk dira zure ardurak Udalaren barruan?**

Aipatu dudak bezala, Kultura, Gazteria eta Kirol Saileko arduraduna naiz. Sail honetaz arduratzen dira Maite Cachorro, Joseba Perez eta Sonia Diez, eta Aitor eta Loren teknikariak ere. Nire eginkizuna da Saila Gobernuko Batzar Lokaletan, Udalbatzan eta arlo horiekin lotutako jardueretan ordezkatzea. Hala ere, erabakiak guztion artean hartzen ditugu. Saileko kide bat besterik ez naiz.

- **Zeintzuk dira kirola sustatzeko hartu diren eta hartuko diren erabakiak?**

Gure asmoa beti izan da adin eta gizarteko alde guztiek kirola egiteko aukerak izatea. Gure ustez, hau oinarritik egin behar da, horregatik hainbat kirol eskola abiatu dira, kirol mota guztietara heltzeko eta instalazioak eta laguntza ekonomikoak emanez. Garrantzitsua da klubak eta guztiontzako kirola bultzatzea, baliabide berberak emanez. Gure filosofiak ildo horretan joan behar du, baina beti egongo dira hobetu ahal eta behar diren gauzak.

- **Eta kulturaren esparruan?**

Kolektibo guztiek parte hartu ahal izateko urteko programazioa finkatzen saiatzen gara. Halaber, elkarrekin laguntzak ematen dizkiegu eguneroko lanean eta proposatzen dituzten ekintza eta programetan, partehartze hau herriaren indarra izan dadin. Gainera, Etxebarriin kultura sustatzeko hainbat zerbitzu daude: liburutegian, ludoteka-zerbitzuak, kultur etxea, udalekuak, informatika gunea, gaztelekua...

- **Gero eta ume gehiago dago herrian. Eskolara joan behar izango dutenean sortu ahal diren arazoei aurre egiteko neurriak hartu al dira?**

Udaloi ikastetxeen mantentze-lana baino ez badagokigu ere, Hezkuntza Sailari eskatu zaio Lehen Hezkuntzako beste zentro bat eraikitzeko, proiektua egiten ari dira eta espero dugu 2009an martxan egotea. Zentroei eskola-laguntza, eskolatik kanpoko ekintzak finantzatzu eta bestelako udal-instalazioen erabilera onartuz laguntzen diegu. Haur-eskolaren bidez 0 eta 2 urteen arteko hezkuntzaren alde egiten dugu.

- **Polikiroldegiak harrera ona izan du herrian, baina arazoren bat egon da. Zein da gaur egungo egoera?**

Egia da zerbitzu berria denez guztiontzako (erabiltzaileak, kudeatzaileak, Udala) zenbait arazo egon dira, baina gehienak konponduta daude. Gaur egungo egoera errendimendu osokoa eta zerbitzu onekoa da, baina ezin dugu ahaztu guztion artean hobetzera behartuta gaudela. Batzuetan beharrezkoa da inguruan daukaguna begiratzea etxean daukaguna ondo baloratu ahal izateko.

- **Amaitzeko, aprobetxatu ahal duzu Etxebarriko euskaldunei eta euskara ikasten ari direnei nahi duzuna esateko.**

Hasteko eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuet ni pixka bat gehiago ezagutzeko aukera eman didazuelako. Uste dut hizkuntza kulturaren oinarri nagusienetako bat dela, edo nagusia, eta hizkuntza ezagutzeak ordezkatzeko duena ezagutzea esan nahi du. Horregatik gonbidatu nahi zaituztet, ikasten ari zaretenak ikasten jarraitzeko eta ikasten ez dugunok ahalegina egiteko eta saiatzeko.

Eskerrik asko eta ondo izan.

# Poloniarrek Etxebarrin

9 neska poloniarrek etorri dira lau urtetan zehar euskara ikastera. Lezaunen eta Arantzazuko barnetegietan egoten dira 15 egun, bost edo sei ordu gutxi gora behera ikastaroak jasoz. Gainera, euskara ikasteaz gain txangoak ere egiten dituzte; adibidez, Bilbora, Donostiara, Hondarribiara, Gasteizera eta abarrera. Haiek ere ikasten dituzte hemengo geografia, historia, ohiturak, kultura, besteak beste. Otsailaren 8an Etxebarriko euskaltegira etorri ziren euskal soinuak erakusketa bat ikusterera. Gizon batek azaldu zuen zeintzuk ziren eta zertarako erabiltzen ziren soinuak garaian zehar. Esate baterako, irrintziak, trikitixa, adarrak eta txalaparta. Ia denon artean dantza egin eta instrumentuak jo genituen.

Poloniarren izenak Emilia, Beata, Wanda, Kasia, Asia, Paulina, Anna eta Beata Karpeta dira. Hasieran euren irakasleak esan zigun moduan, oso zaila izan zen euskara irakastea ez zekitelako gaztelerez polonieraz baizik. Urrats ezberdinak daukate haien

artean; lehen aipatu ditugun Marta euskal filologia ikasten ari da Gasteizen. Haiek kontatu duten moduan, Poloniako unibertsitatean badago euskara katedra bat eta horrekin hango ikasleek ikas dezakete euskara.

Haiek kontatu dizkiguten gauza bitxiak artean ondokoak ditugu: Kasia Euskal Herrira etorri zen lehenengo aldiz atzamarrez izan beste lagun batzuekin. Marta bi aldiz joan da Laidako erretegi batera lan egitera zerbitzari. Kasia eta Marta EGA prestatzen ari dira, Kasia Poloniara itzuliko da eta han jarraituko du euskara klaseekin. Marta, arestian esan dugun moduan, Euskal Herrian geratuko da (Gasteizen) euskal filologia egiten Erasmus bekarekin. Emilia, Beata eta Wanda sakontze urratsean ari dira.

Haien esperientziarekin batera esan dezakegu Euskal Herria eta Polonia oso urrun egon arren oso hurbil daudela hizkuntzaren aldetik.



# Tarragonar bat euskaltegian

**Aldizkaria: Zein da zure izena?**

**Ikaslea:** Maria Jose dut izena, baina Mari esaten didate.

**Ald: Nork animatu zaitu euskaltegia etortzera?**

**Ikas:** Nik neuk. Udazkeneko egun loriatsu batean, paseatzera irten nintzen eta koloretako etxetxoak zituen parke zoragarri bat aurkitu nuen. Batean sartu nintzen. Euskaltegia zen. Nire euskararekiko harremana egun horretan hasi zen. Auskalo! Beste kolore bateko etxe batean sartu izan banintz, agian gaur, txistua jotzen ibiliko nintzatekeen. Aukera hori ez dut baztertzeko, ordea, nik txirula jotzen dut eta.

**Ald: Zein izan da euskara ikasteko arrazoia?**

**Ikas:** Hizkuntzek liluratu naute. Hizkuntza hau ikasi nahi dut eta hitz egiteko gai izan nahi dut. Bizi zaren lekuko hizkuntza jakiteak duen garrantziaz oso kontziente naiz eta.

**Ald: Nongoa zara?**

**Ikas:** Tarragonako herri batean jaio nintzen, Vila-seca i Salou. Hala ere Reusen bizi izan naiz azken aspaldi honetan.

**Ald: Noiz etorri zara Euskal Herrira?**

**Ikas:** 2004. urtean etorri nintzen Etxebarri bizitzera.

**Ald: Nola pasatzen duzu euskaltegian?**

**Ikas:** Primeran, denbora berehala pasatzen da ikasten. Eskolak oso entretenigarriak dira, motibazioa gailentzen da. Gainera irakasle bikaina daukagu. Klase guztiak ezberdinak dira. Nire ustez denok arratsaldeko zazpiak izateko desiratzen gaude eskolara joateko.

**Ald: Euskaltegitik zer da gehien gustatzen zaizuna?**

**Ikas:** Laguntasuna, dagoen jende jatorra, Ernioberen pazientzia, euskararen musikaltasuna, esaldi oso bat ondo esateak ematen dizun poztasun pertsonala, euskara ikastearen abentura.

**Ald: Eta gutxien?**

**Ikas:** Bekosolo parkeko iluntasuna eta hurbil ezin aparkatzea. Iluntzean parkea zeharkatzeak beldurra ematen du. San Antoniotik euskaltegirako bidean argi ona ematen duten farolak

falta dira. Oro har, ia dena erdi-ilunpean dago, tangoan bezala.

**Ald: Gustura zaude euskara ikasten?**

**Ikas:** Jakina! engantxatuta nago, euskaradiktoa naiz. Euskaltegitik irten bezain pronto abstinenzia sindromea nabaritzen dut. Kar, kar! Ikastea bezalako mendekotasun hoberik ez dago! Gainera, hizkuntza bat ikasteak neuronak eragiten ditu. Ni neu harritzen naiz: he dejado de fregar los platos para hacer el harrikoa. Ya me veo el perfil! kar, kar!

**Ald: Hizkuntzak ez badira praktikatzen galdu egiten dira. Katalana ahaztu egingo duzu?**

**Ikas:** Hango lagunekin sarritan telefonoz hitz egiten dut eta katalanez egiten dugu, gainera nire katuarekin euskara eta katalana praktikatzen ditut, bera ere inmigrantea da. Orain ulertzen ditu etorri hona eta vina cap aqui. Elebiduna izatea nahi dut eta bi nazionalitateak edukitzea, aurretik ere, ez bagaituzte hemendik botatzen. Kar, kar! Orain arte ia dena abantailak izan dira.

**Ald: Orain zertan ari zara?**

**Ikas:** Oposaketak prestatzen ari naiz eta gaitutuko ditut. Lanbide laguntzarako GKE batek gomendatu didana egin dut; horrelako beste batek neure burua makurtzeko eta zentralita baten atzean teleoperadora bezala aritzeko esan dit. Kar, kar! Zelako barreak! Hala ere biak bat datoz, nire lanbidean zail daukat, kontulari administratiboa naiz. Beno, beti geratuko zait marrubia edo mahats-bilketa, edo bestela EAJ-PNVra afiliatzea. Dagoeneko Hollywood-eko aktoreei bezala gertatzen zaigu ez digute paperik ematen. Kar, kar! Hemen zailtasunak izan ditut lana lortzeko, baliteke boikota izatea, kaba katalanari bezala. Kar, kar!

Baimena ematen badidazue, aldizkariak ematen didan aukera aprobetxatuko dut eta publizitatea egingo dut. Enplegatzaile argitsu bati deialdia egiten diot: langile, eraginkor eta ermamietan arritmia duen (450 pultsazio edo gehiago minutuko) administratiboa gaitzen ari zarete. Itxura onekoa, urteetako esperientzia,

erreferentziak, badakit denetik egiten eta ez dut asko kobratzen...kontuz! 19:00etatik 21:00etara euskaltegia daukat. Informazioa hemen bertan. Negozio berria irekitzeko asmoa ere badaukat, oilaskoekin zerikusirik ez daukana, jakina! Kar, kar!

**Ald: Euskara ikastea zaila iruditzen zaizu?**

**Ikas:** Orain arte ezagutu ditudan beste hizkuntzekin konparatuta guztiz diferentea da. Zaila da, topikoa da, baina egia da, hala ere, lortuko dut ez dut itxaropena gaitzen.

**Ald: Nola ikusten duzu geroko bizitza? Euskal Herrian ikusten duzu zeure burua?**

**Ikas:** Berdin zait baserri batean hemen bertan edo kataluniako masia batean, nire familiarekin, ortua, aske egongo diren lau animaliarekin eta perretxikoak hartzen diren koniferoko mendien ondoan. Hurbil errekatxo bat badago, hobeto.

**Ald: Zer da Euskal Herritik gehien gustatzen zaizuna?**

**Ikas:** Nire bikotekidea eusko label, ezagutu dudan jende jatorra, bere jaiak, txosnak, gastronomia, paisaiak, mendiak, bere itsaso bortitza, garraio publikoa, Jesus Mari? apaiza eta bere organoa, Etxebarri eraikiko duten gurgpilezko patinajea egiteko pista, Etxebarri... eta elurra egiten duela egin behar duenean.


**Ald: Eta gutxien?**

**Ikas:** Bonbak, ea.


VISCA (GORA) EUSKAL HERRIA!



# Denborapasak



Ikusten al dituzu  
dauden 3 aurpegiak?



Zergatik gelditzen da hutsune hau?

# Logika jokoak

Gizon batek otso bat, ardi bat eta aza bat dauzka. Bere bidean ibai bat zeharkatu behar du. Txalupa bat dago baina arazo bat dauka: Gizonak txalupan gauza bakar bat eraman ahal du bidaia bakoitzean. Gainera ezin da utzi ardia otsoarekin (otsoak ardia jango luke) eta ardia azarekin (ardiak aza jango luke).

*Nola konponduko da artzaina?*



Hiru lagunen artean 30 euroko liburu bat erosi dute. Bakoitzak 10 euro jarri du. Ordaintzerakoan dendariak 5 euro oparitu die. Orduan bakoitzak euro 1 hartu du eta 2 fondo komunerako gorde dute. Beranduago kontuak egiten hasi dira eta esaten dute: bakoitzak 9 euro gastatu ditu, beraz,  $9 \times 3 = 27$  euro. Fondoan geratu diren 2 euroekin = 29 euro. *Non dago falta den euroa?*

Enparantza batean bi autobus daude. Lehenengo autobusean 40 emakume daude eta bigarrenean 40 gizon. Lehenengo autobusetik 10 emakume beste autobusera pasatu dira, eta gero, bigarren autobusetik 10 pertsona (gizonak eta emakumeak) pasatu dira. Beraz, autobus bakoitzean 40 pertsona geratzen dira berriro.

*Baina, lehenengo autobusean dauden GIZONAK eta bigarren autobusean dauden EMAKUMEAK baino gehiago dira? edo alderantziz? edo kopuru berbera dago?*



# Txanogorritxoren bi bertsiak

## TXANOGORRITXO

Behin batean neska bat herri txiki batean bizi zen eta beti janzen zuen txano gorri bat eta klaseak bukatzen zituen guztietan bere amonaren etxera joaten zen. Egun batean bere amak amonaren etxera bidali zuen ezta eramatera bera gaixorik baitzegoen. Txano Gorritxuk saskia hartu zuen eta bere txanoa jantzi zuen basoa zeharkatzeko.

Herritik irten zenean, bidetik loreak hartzen denbora eman zuen eta betiko bidetik galdu zen baina ez zen gehienetan kezkatzen beste batzuetan bidea aurkitzen baitzuen. Baso erdian zegoenean otsoa heldu zen eta galduta zegoenez otsoari galdetu zion:

-Egun on otso jauna, badakizu non dagoen nire amonaren bidea?

-Bai, badakit. Bi aukera daukazu\_erantzun zion otsoak\_ joaten bazara hortik bidea oso luzea da eta gaua etorriko zaizu, baina hartzen baduzu ezkerreko bidea lasterrago helduko zara zure amonaren etxera.

Baina otsoa, oso maltzurra zenez, gezurra esan zion eta bide luzeagotik joateko agindu zion. Txano Gorritxuk, oso ona zenez, sinetsi zuen otsoak esan ziona eta bide luzeena hartu zuen. Txano Gorritxu bide luzetik joan zen bitartean, otsoa bide laburrenietik amonaren etxeraino heldu zen. Amonaren etxean sartutakoan amona jan zuen gose handia zelako. Otsoa amonaren arropak jantzi zituen eta mozorrotuta amonaren ohera sartu zen, Txano Gorritxu-ren zain. Bat- batean neska etorri zen eta bere amona bisitatzera joaten zen bakoitzean egiten zuen moduan muxu bat eman zion, baina konturatu zen amona oso arraro zegoela.

-Kaixo amona, zer moduz? Ezta ekarri dizut sendatzeko.

-Eskerrik asko nire iloba kuttuna, oso maite zaitut.

-Baina, oso ezberdin zaude amona, zergatik daukazu hainbeste ile aurpegian?

-Azala txarto daukadalako.

-Eta zergatik daukazu belarriak hain handiak?

-Zu ondo entzuteko.

-Eta zergatik daukazu begiak hain handiak?

-Zu hobeto ikusteko.

-Eta aho hori zergatik duzu hain handia?

-Zu jateko!!!\_erantzun zion otsoak\_

Orduan otsoa altxatu zen ohetik eta Txano Gorritxuren bila joan zen, baina bera oso azkarra zenez armairuan sartu zen eta oihukatzen hasi zen. Mementu horretan etxearen inguruan ehiztari bat zegoen eta oihuak entzuterakoan etxean sartu zen eta otsoa hil zuen.

Gizonak otsoaren barrutik amona atera zuen eta bere iloba hurbildu zen eta besarkada handia emanek elkartu ziren. Eta hau horrela bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Etxebarriko plazan.



## TXANOGORRITXO

Bazen behin bere amarekin bizi zen neskatxo bat Txano Gorritxo izena zuena. Egun batean bere amak eskatu zion amonari saski bat ezta eta gaztarekin eramatea, gaixorik zegoen eta.

Amona basoan bizi zen eta amak esan zion Txano Gorritxori kontu handia izan behar zuela basoan zeharkatuz, zeren eta hortik ibiltzen zen otso gaizto bat. Txano Gorritxo baso erdian zegoenean, otsoarekin topo egin zuen. Otsoak galdetu zion Txano Gorritxuri ea nora zihoan eta berak erantzun zion amonaren etxera zihoala janaria eramatera saskitxo batean. Orduan otsoak proposamen bat egin zion; amonari lore sorta eramatea oso gustuko litzaioke eta. Horretarako esan zion Txano Gorritxori beste bide batetik joateko lorek hartzeko. Baina neskatxok loreak hartzen zituen bitartean, otsoak beste bidea hartu zuen eta heldu zen amonaren etxera Txano Gorritxo baino lehen.

Otsoak atea jo zuen eta Txano Gorritxu zela esan zion amonari. Amonak atea zabaltzeko zela eta otsoa ikustean ezusteko handia hartu zuen, baina armairu baten barruan ezkutatzera lortu zuen. Ondoren otsoak amonaz jantzita ohean sartu zen, Txano Gorritxoren zain. Txano Gorritxo heldu zenean otsoa aurkitu zuen amona zela pentsatuz, baina neska konturatu zen amonak zer edo zer arraroa zeukala.

Beraz, galdetu zion Amama zelako begi handiak daukazun, ezta?

Otsoak erantzun zion zu hobeto ikusteko .

Berriro neskak galdetu zion: Amona, zer nolako belarri handiak dituzun, ezta? eta otsoak erantzun zion zu hobeto entzuteko .

Azkenik Txano Gorritxuk galdetu zion Amona, horiek bai hatz handiak dituzunak, ezta? eta otsoak erantzun zion oihuka zu hobeto jateko dira .

Hau esan bezain laster ohetik altxatu zen neska jateko asmoz, baina Txano Gorritxuk alde egitea lortu zuen laguntza eskatzeko. Hortik zegoen ehiztari batek bere oihuak entzutean berarengana joan zen. Ehiztariak gertaera ikusitakoan otsoaren bila joan zen eta eskopetarekin hil zuen.

Hau gertatu ondoren biak elkarrekin amona askatzera joan ziren. Denok batera Txano Gorritxuk zeramatzan janariak jan zituzten poz- pozik.

Eta horrela bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Etxebarriko plazan.

# ASMAKIZUNAK

## IGOGAILUA

Tipo bat hamargarren solairuan bizi da. Egunero lanera joateko igogailua hartzen du. Kotxea hartzeko hamargarren solairutik garajera jeisten da baina etxera bueltatzean zazpigarren solairuraino igotzen da eta gainontzeko hiru solairuak oinez igotzen ditu. Zergatik ez da hamargarren solairuraino igotzen?

## BAHIKETA

Gizon bat bahituta dago gela batean. Ez dago leihorik ez aterik. Gelan ohe bat, lanpara bat eta konketa bakarrik dago. Bahitzaileek esaten diote: zein herritan gauden asmatzen baduzu, libre utziko zaitugu. Hauexek dira aukerak; Mexiko, Londres, Buenos Aires, Pekin eta Berlin. Hamar minutu beranduago gizonak Buenos Airesen dagoela asmatzen du. Nola asmatu du?

## ETENGAILUAK

Bi gela daude korridore batez lotuta. Gela batean bonbilla bat dago itzalita eta bestean hiru etengailu. Zu etengailuen gelan zaude. Batek bakarrik balio du bonbilla pizteko. Bakarrik behin irten zaitezke zure gelatik bonbilla dagoen gelara. Bonbilla uki eta ikus dezakezu. Korridoretik ezin duzu bonbilla piztuta dagoen ikusi. Aurkitu zein den etengailu egokia.

## ELEFANTEA

Elefante familia batek zubi bat zeharkatzen du. Aita, ama eta kumea dira familiako partaideak. Zubia zeharkatu eta elefante kumeak esaten du: Aita, zeinen ongi zeharkatu dugun laurok zubiak, e? Zergatik esaten du kumeak laurok eta ez hirurok?



### ERANTZUNAK

**IGOGAILUA:** Ipotxa da eta bakarrik zazpigarren solairuko botoira neri daiteke.

**BAHIKETA:** CORIOLIS efektuagatik. Zertan datza? Ipar hemisferioan konketa ake urak erlojuaren orratzen zentzua jarraitzen du baina Hego hemisferioan kontrako zentzua darama. Demagun bahituak eskuak garbitzen dituela eta uraren norabidea ikusten duela erantzuna jakiteko.

**ETENGAILUAK:** Hasteko, piztu ezazu lehenengo etengailua bost minutuz gutxi gorabehera eta gero itzali. Orain, piztu ezazu bigarren etengailua eta jarraian abia zaitez beste gelara. Piztuta badago bigarrena da, itzalita badago uki ezazu bonbilla, bero badago lehena izango da eta hotz badago hirugarrena izango da.

**ELEFANTEA:** Elefante kumetxoak ez dakielako ondo zenbatzen.




# Errezetak



## Kesada


### Osagaiak

- Edalontzi bat nozilla
- Edalontzi bat esne-gain
- Edalontzi bat azukre
- Bi edalontzi irin
- Hiru gazta (Caseño)
- Hiru arrautza
- Jogurt bat naturala



### Nola egin


1. Ordena jarraituz, dena nahasten da .
2. Dena irabiatu, osagaiak nahasteko.
3. Irinaz igurtzitako oinarria bete.
4. Bota kanela gainetik
5. Sartu labean 40 minutuz.



## Piperrak perretxikoekin

### Osagaiak

- Pote bat piper (Piquillo)
- Kilo bat perretxiko
- 3 baratzuri ale
- Arrautza bat
- Olioa
- Irina
- Gatza



### Nola egin

1. Zartagin batean olio beroa ipini eta txikitutako baratzuriak frijitu.
2. Ondoren, zatitutako perretxikoak gehitu. Gatz pixka bat bota eta egosi 10 minutuz.
3. Gero perretxikoak sartu piperretan.
4. Azkenean, arrautza irabiatu.
5. Arrautza-irinetan pasatu eta zartaginan frijitu.

## Porru Tortilla




### Osagaiak:

- 4 porru
- tipula erdia
- 4 arrautza
- olioa
- gatza
- bakailao gezatua




### Prozedura:

Lehenengo porruak eta tipula xehatu ditugu; zartagin batean olioa ipintzen dugu, porruak eta tipula zartaginera bota eta erdiegosten dugu. Ia eginda dagoenean bakailaoa gehitzen dugu. Gero katilu batean lau arrautzak irabiatzen ditugu. Azkenik, porruak, tipula eta bakailaoa arrautzekin nahastu eta tortilla egin dugu.



# Euskalgoxo



## Osagaiak:

- litro bat ardi-esne
- gatzagi pixka bat
- 3 errege-sagar
- gurin koilarakada bat
- 2 kopa ardo zuri lehor
- 2 koilarakada azukre
- 150 gr. esnegain harrotu
- kanela zotz bat
- dekoratzeko: sagar xaflak




## Prozedura:

Lehenengo, aho zabaleko molde batean gatzatua prestatzen dugu irakindako esnea, esne epela eta gatzagiarekin. Egindakoan gorde.

Ondoren, sagarrak zuritu, bihotza kendu eta zatitzen ditugu; gero, ardo zuria, azukrea, kanela eta gurina kazola batera botatzen dugu eta, kazola ongi itxita, su motelean, sagar konpota egiten dugu. Konpota eginda dagoenean hozten uzten dugu.

Azkenik, azpil batean gatzatua botatzen dugu eta gatzatuaren inguruan konpota jartzen dugu. Esnegain pilatsuekin dekoratzen dugu eta sagar xaflekin batera zerbitzatzen dugu.



**¿QUIERES APRENDER EUSKERA**

**EUSKARA IKASI NAHI?**

**EN ABRIL**

**!!!VEN AL EUSKALTEGI DE ETXEBARRI!!!!**

**APIRIEAN ZATOZ ETXEBARRIKO EUSKALTEGIRA!!!!**

**HORARIOS FLEXIBLES, TODOS LOS NIVELES  
(EGA, PERFILES LINGÜÍSTICOS...)**

**ORDUTEGI MALGUAK, MAILA GUZTIAK  
(EGA, HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK...)**

**HORARIO DE OFICINA DE 11:30 A 13:00  
Y DE 16:30 A 18:00**

**BULEGOKO ORDUTEGIA: 11:30-13:00  
ETA 16:30-18:00**

**LLAMA YÁ AL 944262802 O MANDANOS UN  
E-MAIL A [etxebarri@euskalnet.net](mailto:etxebarri@euskalnet.net)**

**DEITU 944262802 TELEFONORA EDO BIDALI  
E-MAILA [etxebarri@euskalnet.net](mailto:etxebarri@euskalnet.net) HELBIDERA.**



**ULIBARRI  
EUSKALTEGIA**